

GENERO IKUSPEGIA DUTEN AURREKONTUEN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko urriaren 16ko Ogasuneko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2013an abiatu genuen Donostiako Udal Aurrekontuak genero perspektibaren klabeen egiteko prozesua. Andaluziako Juntan eginiko esperientzia ezagutu zen eta ondoren, hainbat prestakuntzarekin jarraitu zen Yolanda Jubeto eta Mertxe Larrañagaren laguntzarekin. 2014ko apirilean, Donostiako Udalera egokitutako metodologia bat aurkeztu zen, aurrekontuak genero perspektibarekin egiteko.

Aurrekontu proposamenak genero perspektibadun azterketa zeraman lehen aldia izan zen 2015ekoa. Azterketa horren bidez, aurrekontuen eztabaidan genero perspektiba ezartzea ahalbideratu nahi zen batetik, eta bestetik, aurrekontu proposamena teknikariek egiten denez, aurrekontuak egikaritzeko prozesuan ere genero perspektiba kontuan hartzeko balio izatea.

Txosten hau aholku eta analisi txostena izanda, ez da aurrekontua onartu edo atzera botatzen duen dokumentua, ezta aurrekontuak genero perspektiba duela baieztatzen edo ezeztatzen duen dokumentua ere. Aurrekontuek eragina dute pertsonengan eta pertsonengan eragina dutenez, emakume eta gizonengan eragina ere badutela ulertzekoa da. Txosten honen bidez, eragin hori nolakoa den ikusarazi nahi da eta aholkuak eman eragina berdintasuna eraikitzearen aldekoa izan dadin.

Azterketa hau lau parametroetan egiten da, eta urtero aurrekontu proposamenarekin batera aurkeztea da helburua. Lau parametroak hauek dira: lehena, aurrekontuaren diru partida handiena mugitzen duten zuzendaritzen gastuak aztertzea; bigarrena, emakume eta gizonen berdintasuna sortzeko edo eragiteko zuzendaritzek zer aukera duten aztertzea; hirugarrena, Giza Baliabideen atalaren bidez, udal langileek berdintasun gaitan duten ezagutza neurtzea, eta laugarrena, Berdintasun Planak jasotzen dituen zazpi ildo estrategikoei loturiko neurriak zuzendaritzak neurtzea.

Azterketa honetan, urtero zuzendaritza batzuk lehenetsiko dira azterketa sakonagoa egiteko. Orain arte sei zuzendaritza lehenetsi dira analisisa sakontzeko eta hauen zuzendariekin ere saio bereziak egin dira. Zuzendaritza hauekin aurrekontuaren % 58 sakonago aztertu zen. 358 milioietatik 209 milioi baitira sei zuzendaritza hauek kudeatzen dituztenak. Zuzendaritzak hauek izan dira: Azpiegiturak eta Zerbitzuak / Mugikortasuna / Kultura (aurrekontu bolumen handienak dituzten hiru sailak izategatik) eta Ongizate Saila / Hezkuntza eta Gizarte Sustapena / Herri partaidetza (emakume eta gizonen arteko berdintasunean eragiteko gaitasun handiena daukaten sailak direla ikusi baita).

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

2015eko irailaren 14an burututako Pertsonen Zerbitzu Batzordean, Jaime Dominguez Macayak Ogasuneko eta Finantzetako zinegotzi ordezkariak gai honen inguruko galderari emandako erantzun ezak kezkatu gintuen, izan ere, bazirudien 2016ko aurrekontuak genero perspektibatik egiteko asmoa zuela Udal Gobernuak, baino txostenaren inguruan ezer gutxi aurreratu zigun. Urria bitarte, gaiaren inguruko azalpenik jaso gabe jarraitzen genuenez, urriko batzordeetan interpelatu egin behar izan genuen, eta Udal Gobernuaren aldetik gaiak izan duen kudeaketa eta jaso genuen erantzun eskasaren ondorioz, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio genero ikuspegia duten aurrekontuen lanketan jarrai dezala eta 2014an zehazki Donostiako Udalarentzat landutako metodologia gelditu ez dezala; gutxienez hobekuntzak ekarriko dituen bestelako metodologia bat landu eta zehaztu arte.
- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio 2016ko Aurrekontu Proiektuarekin batera, genero ikuspegia bermatzen duen gomendio txostena ere aurkeztea eta Tokiko Gobernu Batzordean onartzea.

Donostian, 2015eko urriaren 23an

Naiara Sampedro Perez

EH Bildu udal taldeko zinegotzia